## Urtarrilak 16 enero

**18:00**
**Bisita gidatua** / Visita guiada

Bisita gidatua *Kotoiaren algoritmoak* erakusketara, Ginea Bissauko Zé Interpretador musikari eta ehungilearen eskutik. Erakusketara bisita berezia egingo du bere ikuspegi pertsonala emanez. / Visita guiada a la exposición *Algoritmos del algodón* a cargo de Zé Interpretador, músico y tejedor de Guinea-Bissau que nos guiará en una visita especial para ofrecernos su punto de vista personal.

Erakusketa-aretoa / Sala de exposiciones

## Urtarrilak 17 enero

**17:30**
**Elkarrizketa** / Conversación

Elkarrizketa Filipa Césarrekin, Olivier Marboeuf-ekin eta Zé Interpretadorrekin. / Conversación con Filipa César, Olivier Marboeuf y Zé Interpretador.

Z aretoa / Sala Z

Saio honetan Filipa César artistak, bere pelikulen ekoizle den Olivier Marboeuf-ek eta Ginea Bissaun ehungile den Zé Interpretadorrek solasaldia eskainiko dute. Elkarrekin osatu duten pelikulak aztertzen dituen kolonialismoaren arrastoei jarraituz, Ginea Bissauko errealitatera gerturatzeko balioko digu.

La artista Filipa César, el productor de sus películas Olivier Marboeuf y el tejedor de Guinea-Bissau Zé Interpretador nos ofrecerán un diálogo a tres. Siguiendo el rastro del colonialismo que analiza la película que han realizado en conjunto, la charla nos servirá para acercarnos a la realidad de Guinea-Bissau.

**19:00**
**Gutun zuria** / Carta blanca

Elías Querejeta Zine Eskolako ikasleek aukeratutako filmaren aurkezpena eta proiekzioa. / Presentación y proyección de la película seleccionada por los estudiantes de Elías Querejeta Zine Eskola.

Sarrerak salgai / Venta de entradas
Zinea / Cine

## Urtarrilak 30 enero

**19:00**
**Elkarrizketa** / Conversación

*Leer Debord*, elkarrizketa Amador Fernández-Savater filosofoaren eta Hugo Savino saiakera-idazle eta poetaren artean. Jardunaldiak Guy Deborden ibilbidea izango du aztergai, hainbat kolektibo eta mugimendutan ibilitako filosofo, iraultzaile, idazle eta zinegile frantsesa. / *Leer Debord*, conversación entre el filósofo Amador Fernández-Savater y Hugo Savino, ensayista y poeta. La jornada analizará la trayectoria de Guy Debord, filósofo, revolucionario, escritor y cineasta francés que ha formado parte de diferentes colectivos y movimientos.

Z aretoa / Sala Z

## Urtarrilak 31 enero

**19:00**
**Proiekzioa** / Proyección

***In girum imus nocte et consumimur igni,*** (Guy Debord, 1978, 160’)

Sarrerak salgai / Venta de entradas
Zinea / Cine

## Otsailak 6 febrero

**18:00**
**Elkarrizketa** / Conversación

Eskuak zailtzeko proposamena (Arte Garaikidea lan editorialaren ikuspegitik). Nuria Enguita eta Laura Vallés (Concreta aldizkaria), Usue Arrieta eta Nader Koochaki (-zko argitaletxea) eta Donostiako AZPI kolektiboa. / Propuesta para ejercitar las manos (El Arte Contemporáneo desde la perspectiva de la práctica editorial). Nuria Enguita y Laura Vallés (Revista Concreta), Usue Arrieta y Nader Koochaki (editorial -zko) y el colectivo donostiarra AZPI.

Sortzaileen Gunea / Espacio de Creadores



# HEZKUNTZA-PROGRAMA
# PROGRAMA DE MEDIACIÓN

**Azaroak 20 noviembre:** *On Fail[l]ed Tales and Ta[y]lors*
**Abenduak 4 diciembre:** *Kotoiaren algoritmoak* / *Algoritmos del algodón*
**Abenduak 18 diciembre:** *On Fail[l]ed Tales and Ta[y]lors*
**Urtarrilak 22 enero:** *On Fail[l]ed Tales and Ta[y]lors*
**Otsailak 4 febrero:** *Kotoiaren algoritmoak* / *Algoritmos del algodón*

**BISITA SOLASALDIAK**
**VISITAS DIALOGADAS**

**18:00** ES / **19:00** EU

Gure bisita gidatuetan hainbat eztabaida eta ibilbide proposatzen ditugu, erakusketen edukietatik abiatzen direnak. Efizientziarik eza, nekea, akatsak, oraina zalantzan jartzea, estandar menderatzaileen erronka, diziplina anitzeko ikerketa eta ikerketa kolektiboa izango dira bisita horietan jorratuko ditugun gaietako batzuk. / En nuestras visitas guiadas proponemos diferentes debates y recorridos que parten de los contenidos de las exposiciones. La ineficiencia, el agotamiento, el error, el cuestionamiento del presente y desafío de los estándares dominantes, o la investigación interdisciplinaria y colectiva serán algunos de los temas que abordaremos en estas visitas.

Aldez aurretiko izena ematea / Previa inscripción: **www.tabakalera.eu**
Erakusketa-aretoa / Sala de exposiciones

**Abenduak 12 diciembre**

**BISITA ESPERIMENTAL BATERATUA**
**VISITA EXPERIMENTAL CONJUNTA**
***Data walk***

**Jaime de los Ríos** artistarekin / Con el artista **Jaime de los Ríos**

**18:00** ES

Daniel Cannogar-en ***Memorias Líquidas***, Filipa César-en ***Kotoiaren algoritmoak*** eta Madrassa Collective-n ***On Fail[l]ed Tales and Tay[l]lors*** erakusketen bisita bateratua. / Bisita conjunta a las exposiciones ***Memorias líquidas*** de Daniel Cannogar, ***Algoritmos del algodón*** de Filipa César y ***On Fail[l]ed Tales and Tay[l]lors*** de Madrassa Collective.

Kubo Kutxa aretoa eta Erakusketa-aretoa / Sala Kubo Kutxa y Sala de exposiciones

**ARTE-LANTEGIA**
**TALLER DE ARTE**
***Kamaleoiak gara!***

**2019**
**Azaroak 30 noviembre - Urtarrilak 11 enero - Otsailak 8 febrero**

**11:00** EU
***Fake news!*** Laborategi poetiko-politikoa / Laboratorio poético-político

Lantegi honetan, egunkarietan, albistegietan eta sareetan argitaratzen diren berri faltsuak identifikatu eta desmuntatuko ditugu. Kontra-informazio kolektiboko kanpaina bat sortuko dugu pankarta eta kartelekin telebista-plato batean, kartoizko kamera eta mikrofonoak erabiliz, eta ekintzen bidez espazioan sartuko gara. / En este taller identificaremos y desmontaremos noticias falsas que se extienden en los periódicos, telediarios y redes. Crearemos una campaña de contra-información colectiva con pancartas y carteles en un plató falso de televisión, empleando cámaras y micros de cartón, para irrumpir en el espacio por medio de acciones.

Erakusketa-aretoa / Sala de exposiciones



**INFORMAZIO PRAKTIKOA**
**INFORMACIÓN PRÁCTICA**

**Erakusketa-aretoaren ordutegia**
Horario sala de exposiciones

Asteartetik igandera / De martes a domingo: **12:00 - 20:00**




# Collective Agreement

## Jarduera-programa
## Programa de actividades

TABAKALERA
KULTURA GARAIKIDEAREN NAZIOARTEKO ZENTROA
—
CENTRO INTERNACIONAL DE CULTURA CONTEMPORÁNEA
—
Donostia/San Sebastián

# HITZARMEN KOLEKTIBOA
# ACUERDO COLECTIVO

*Hitzarmen kolektiboa (Collective Agreement)* Filipa Césarren *Kotoiaren algoritmoak* eta Madrassa Collective-en *On Fail[l]ed Tales and Ta[y]lors* erakusketen testuinguruan antolatutako jarduera-programa da. Proiektu horietatik abiatuta, programaren helburua kolektiboak lan-estrategia eta prozesu artistiko gisa duen izaeraren inguruan hausnartzea da. *Networking* delakotik (negozioen munduan sarea aipatzeko erabiltzen den anglizismoa) datorren hiztegiak kolektibotasunaren figura positiboa jasotzen du, eta konplexutasunik gabeko irudi higienizatu bihurtzen du. Horrela, subjektuen eta hauek proposatzen dituzten enuntziatuen arteko harremanetan sakondu ordez, haren ekintza horizontaltasunaren eta gardentasunaren eszenaratzera mugatzen da. Nahiz eta hizkuntzen erabilerak ahotsen eta aktoreek betetzen dituzten lekuen arteko interakzioak eta etengabeko polaritatea eragiten dituen, ekoizpen-sistema kolektiboen alde egiteak hainbat galdera sortzen ditu:

Nola banatzen dira jakintzak eta erantzukizunak ekoizpen- eta edizio-prozesu kolektiboetan? Nola bermatu daiteke singulartasun-bektore bat prozesu horietan? Zein metodologia erabiltzen dira formalizazio-prozesuetan adostasunak eta desadostasunak agerian jartzeko? Nola aldatzen du obraren eta testuinguruaren arteko harremana autoretzaren kontzepzio kolektiboak? Zer gertatzen da prozesu horien emaitzak ez dituenean betetzen sortutako proiekzio eta aurreikuspenak? Zer da eta zertan datza kolektiboaren potentzia? Horiek dira inauguratuko ditugun erakusketen testuinguruan planteatu nahi ditugun galderetako batzuk: ekoizpen kolektiboan oinarritutako bi proiektu dira, eta, bertatik abiatuta, zinema militantetik, artxibotik, hedabideetatik edo aktibismotik datozen praktikekin aritzen dira elkarrizketan.

*Hitzarmen kolektiboa* programa hainbat fasetan garatuko da, 2019ko azarotik 2020ko otsailera bitartean.

*Acuerdo colectivo (Collective Agreement)* es un programa de actividades que se organiza en el marco de las exposiciones *Algoritmos del algodón* de Filipa César y *On Fail[l]ed Tales and Ta[y]lors* de Madrassa Collective. Partiendo de estos proyectos, el programa tiene como objetivo preguntarse sobre lo colectivo como forma de trabajo y proceso artístico. Cierto vocabulario proveniente del *networking* (anglicismo empleado en el mundo de los negocios para hacer referencia a la idea de red) parece capturar hoy en día la figura propositiva de lo colectivo, convirtiéndola en una imagen higienizada y liberada de toda complejidad. De ese modo, lejos de permitirnos ahondar en las relaciones entre los sujetos y los enunciados que estos proponen, el alcance de su acción parece limitarse a una determinada escenificación de la horizontalidad y la transparencia. Y, aunque en realidad, el uso de cualquier lenguaje supone diversos grados de interacción y una polaridad constante entre las voces y los lugares que ocupan los actores, apostar por sistemas colectivos de producción sigue generando diversas preguntas:

¿Cómo se distribuyen los saberes y las responsabilidades en los procesos de producción y edición colectivos? ¿De qué modo se puede garantizar un vector de singularidad en estos procesos? ¿Cuáles son las metodologías que se emplean para visibilizar tanto el acuerdo como el desacuerdo en los procesos de formalización? ¿De qué forma altera la relación entre obra y contexto una concepción colectiva de la autoría? ¿Y qué sucede cuando el resultado de estos procesos no cumple las proyecciones y las expectativas generadas? ¿En qué consiste o dónde reside, al fin y al cabo, la potencia de lo colectivo?

Estas son algunas de las preguntas que queremos plantear dentro del marco de las exposiciones que inauguramos, dos proyectos caracterizados por una producción declaradamente colectiva y que, a partir de ella, dialogan con prácticas provenientes del cine militante, el archivo, los medios de comunicación o el activismo.

El programa *Acuerdo colectivo* se desarrollará en diferentes fases desde noviembre del 2019 hasta febrero del 2020.

## Azaroak 9 noviembre

**12:00**

Filipa Césarren *Kotoiaren algoritmoak* eta Madrassa Collective-n *On Fail[l]ed Tales and Ta[y]lors* erakusketen inaugurazioa. / Inauguración de las exposiciones *Algoritmos del algodón*, de Filipa César y *On Fail[l]ed Tales and Tay[l]lors*, de Madrassa Collective.

**12:00**

Yasmina Reggad-en *We Dreamt of Utopia and We Woke Up Screaming #7* lanaren aktibazioa. / Activación de la obra *We Dreamt of Utopia and We Woke Up Screaming #7, de* Yasmina Reggad.

Erakusketa-aretoa / Sala de exposiciones

Inaugurazioan zehar, artistak instalazioa aktibatuko du, eta irrati bidezko zuzeneko emisioa abiaraziko du. Gainera, publikoari parte hartzeko eskatuko dio, garaiko "gangsterren" anekdotak eta kontakizunak irakurtzeko, abioien eta pertsonen bahiketatik eta hilketa-saiakeretatik, espioitza-istorioetara, hainbat lurraldetako irrati-uhinak dardaran jarri zituztenak.

La artista activará la instalación participativa, iniciando una emisión radiofónica en directo e invitando al público a unirse a ella para leer los relatos de las muchas anécdotas de los «gánsteres» de los años sesenta y setenta, desde secuestros de aviones y personas e intentos de asesinato, hasta historias de espionaje, que hicieron vibrar las ondas de radio de medio mundo y más allá.

---

**13:00 - 14:00**

*Constellations*: Suspended Spaces eta Nadine Atallah-ren arteko elkarrizketa. / *Constellations*: Conversación entre Suspended Spaces y Nadine Atallah.

Lau Pareta aretoa / Sala Lau Pareta

*On Fail[l]ed Tales and Ta[y]lors* erakusketan parte hartzen duen kolektiboak, Suspended Spaces-ek, duela gutxi garatu duen proiektu baten emaitzak aurkeztuko ditu. Bere lan-prozesuaren hainbat alderdi eztabaidatuko ditu, hala nola desplazamendua, gauzak beste ikuspuntu batetik ikusteko tresna gisa, eta bere ikerketaren independentziari eusteko jarraitzen dituen finantzaketa-estrategiak.

Como parte de la exposición *On Fail[l]ed Tales and Ta[y]lors,* Suspended Spaces presenta algunos resultados de su proyecto más reciente. Debatirá diversos aspectos de su proceso de trabajo, incluyendo el desplazamiento como herramienta para ver las cosas desde un punto de vista diferente, y las estrategias de financiación que sigue a fin de mantener la independencia de su investigación.

**16:00 - 17:00**

Grupo Etcetera-ren performancea. / Performance del Grupo Etcétera.

Erakusketa-aretoa / Sala de exposiciones

*The Case Of The Cardboard Helicopter* performance-hitzaldi bat da, Internacional Errorista mugimenduak 2017an Buenos Airesko kaleetan antolatu zuen esku-hartze publikotik abiatzen dena. Hitzaldiak agerian uzten ditu albiste faltsuen mekanismo eta erabilera batzuk; horrez gain, azaltzen du nola hedabide nagusiek albisteak manipulatzen dituzten, gizarte garaikideetan eragiteko.

*The Case Of The Cardboard Helicopter* es una conferencia performativa que parte de una intervención pública organizada por la Internacional Errorista en las calles de Buenos Aires en el año 2017. La conferencia revela algunos de los mecanismos y usos de las noticias falsas, y reflexiona sobre cómo los principales medios de comunicación manipulan la información para influir en las sociedades contemporáneas.

---

**17:30 - 18:30**

Filipa Césarren hitzaldia / Conferencia de Filipa César

Zinea / Cine

Aldi bereko itzulpena / Traducción simultánea

*Meteorisations. Amílcar Cabralen askatasunaren agro-poetika irakurtzen.*

*Life of Crops, Towards an Investigative Memorialization* (Universalmuseum Joanneum, Graz) programaren barruan.

*Meteorisations. Leyendo la agropoética de la libertad de Amilcar Cabral.*

Dentro del programa *Life of crops, Towards an Investigative Memorialization* (Universalmuseum Joanneum, Graz).

---

**19:00**

**Proiekzioa** / Proyección

***De quelques évènements sans signification,*** (Mostafa Derkaoui, 1974, 76´, Maroko/Marruecos, arabiera/árabe ST ES, DCP, Kataluniako Filmotekak zaharberritua / restaurado por la Filmoteca de Catalunya)

Aurkezpena / Presentación: Madrassa Collective.

Sarrerak salgai / Venta de entradas

Zinea / Cine

## Azaroak 10 de noviembre

**19:00**

**Proiekzioa** / Proyección

***Fordlandia Malaise,*** (Susana de Sousa Dias, 2019, 40´, Portugal)

Aurkezpena / Presentación

Sarrerak salgai / Venta de entradas

Zinea / Cine




# Collective Agreement

## Jarduera-programa
## Programa de actividades

GOETHE INSTITUT

TABAKALERA

KULTURA GARAIKIDEAREN NAZIOARTEKO ZENTROA

CENTRO INTERNACIONAL DE CULTURA CONTEMPORÁNEA

Donostia/San Sebastián